

# **BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ\***

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

353n. zenbakia

2009 Urrilla



## **13' AN 2009-2010 IKASTAROA ASIKO DA**



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

**LAGUNTZAILLE**

# Euskalerrian euskeraz

## E U S K E R A Z A L E A K

### 2009-2010 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 42. IKASTAROA**  
**IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**42.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO**  
**3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 423 53 22  
Bilbao

Días: lunes, miércoles y viernes,  
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 423 53 22  
Bilbao

Asierea: Urrillaren 13'an

Comienzo: 13 de octubre

**350' garren zenbakian  
erru batzuk agertu  
ziran, onek dira,  
bertsoak zuzenduta**

#### Aurkezpena

Arrastion danori,  
ondo etorria,  
jakinda zariela,  
Euskerazaleak.  
Sarriten, ametsetan,  
txori kantariak,  
txorrioka euskaraz,  
dudaz nik entzunak,  
au poza, egi balitz,  
leukela euskarak!

#### Amaiera

Klaudio lendakariak, batzarrari  
amaiera emoteko zutundu zan  
eta bertso hau eskeñi euskun:  
Denbora amaitu dugu,  
beteaz billera,  
pozik abiatuz, orain,  
nor-bere etxera.  
Segi dagigun baikor  
eginez aurrera,  
oikatuz indartsu,  
mundu zabalera,  
gora euskerea ta  
gora Bizkaiera.

# Zuzenketa

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA**  
2095 0000 74 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 25 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

# Alejandro Magno (Ospetsua)

Ona emen Alejandro Magnok  
(Ospetsuak) bere eriotz ostean  
betetako itxi ebazan aginduak



- BERE ZERRALDOA, GARAIKO SENDAGILLEAK EROATEA.
- BIZITZAROAN LORTUTAKO ALTXORRAK (URREA, ZIDERRA, ARRIBITXIAK), BIDEAN ZEAR SAKABANATUTEA.
- BERE ESKUAK ZERRALDOTIK AT, ZABUKA AGERTUTEA GUZTIEN AURREAN.

\*Alejandroren buruzagi batek, arrituta gurari berezi orregaitik, itaundu eutson zer zan guzti orrein arrazoia.

\*Alejandrok azaldu eutson:

- GURE DOT NIRE ZERRALDOA EROAN DAGIELA SENDAGILLE BIKANENAK, ERAKUSTEKO EZTAUKIELA, EUREK, SENDATZEKO ALMENIK, EROTZAREN AURREAN.
- NIRE ALTXORRAKAZ ESTALDU GURE DOT BIDEA , DANAK IKUSI DAGIEN BEAN IRABAZITAKO ALTXORRAK, BEAN GELDITZEN DIRALA.
- NIRE ESKUAK AIDEAN DILINDAKA EGOTEAGAZ , GURE DOT IKASI DAGIELA GIZAKIEK, ESKU UTSIK GATOZELA LURRERA ETA ESKU UTSIK GOAZELA BERTATIK.

## Ausnarketa:

Gizakiak, ikasbide asko izan dauz aituteko, mundu au, igeskorra dala ta bertako gauzak ez dirala illezkorrak.

Be onetako aintza ta indarra, era bat uts biurtzen dirala arimea betikotasuenean sartuaz batera, burrukaldian irabazitako argitasuna izan ezik.

Eta emon jakon gorputzaren bidez irabazitako bakeaz jabetu al izango dala.



# MARGOLARI NAFARRA “BENEZITEN”

## JAVIER CIGA ETXANDI (1877-1960)

Anitzek galdetuko dute zer ote den “BENEZIT” delako ori. Ain zuzen, munduko margolari ospetsuenak dakarren entziklopedia. Ortxe sartua izateko bear dituzu meritu merezi batzuk izan, batez ere munduko museo garrantzitsuenetan zure irudiak noizbait zinzilikaturik Egon izatea. Auxe gertatu zitzaion JAVIER CIGAREN “ELIZONDO MERKATUA” irudiar. Parisen 1914 urtean sartua izan zen ango “Grand Salon”edo “Gela Andian” . Ez da ezagutzen bertze margolari nafarrik olako mailara igo izan denik, eta espainakoen artean, adibidez, Picaso dago. Cigaren obra ikaragarria izan da. 348 irudi daude zenbaturik, baina bear bada bertze ainbertze eta geiago izan daitezke egin zituenak eta zenbatu gabekoak.






Margolari onek. Iruñeko Arte Eskolan asi zituen ikasketak, gero Madrileko San Fernando Eskolan izendatu zuten irakasle eta urrezko bost dolumin irabazi arte. Geroago, 1911 eta 1914 urtetan Parisen egon zen bere ikasketak sakontzen. Aren obraren estiloa tradiziozko bideak jarraitzen ditu baina berrikuntzaren atalak ikutuz, inpresionismoa eta posinpresionismoaren ildotik. Nafarroako margolari inpresionisteen aitzindaria izan zen. Bere garaiko estiloa jarraituz, marrazketa sendoa zuen, ukierak landuz, koloreei bizitasuna emanez, batez ere beltza eta beltzei.

Munduko lendabiziko gerra asieran Iruñera bueltatzen da eta irakaskuntzan jarraitzen du, Lasterra, Crispi, Ascunce eta bertze batzuk ikasle dituelarik. Urte aietako erretratoak nabarmenak dira: Francisco Lorda, Estanislao de Aranzadi, Arturo Campion, etab. Oiturazko margoekin ere jarraitzen du batez ere Baztango irudiekin. Iruñeko Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzia izan zen 1920-1923 eta 1930-1931 urteetan. 1938 utean espetxeratu izan zen sindikalista bat ihes egitera laguntzeagatik, bi urte kartzelan egonez. Ateratzerako bere ondasunak bahituak ziren: (funeraria negozioa eta

etxea) eta orduko 2.500 pezetako ixuna ere beartua ordaintzera. Ixuna au, margo batekin ordaindu zuten, (El Cristo de la Sanción) zaiona onengatik.



Aren obra genero piktoriko guztek lantzen ditu: istorikoak, mitologikoak oiturazkoak, (El Viático en Baztán) eta batez ere erretratoak; atetan, aitz ongi nabartuz nolakoak ziren bai barrendik eta bai kanpotik bere bezeroek, eta zein miren bakoitzaren bereizkuntzek.

Eta gaur egun non daude aren margoak galdetuko duzue. Berez, "FUNDAZIO" bat dago aren obrar arduratzen dena. Eta dakigunez olaxe daude antolaturik: 9 irudi Nafarroako Museoan, ori bai gaizki iluminatuak. 24 irudi Museoiko sotanoetan, gaizki kaso eginak. 150 irudi aren alaba etxean. Bertze guztiek ainbetze etxetan zear.

Ciga jauna ezagutu nuen, eta ezin dut artikulu au bukatu aren gizatusana, apaltasuna eta jakinduria aipatu gabe.

Nafarroako XX. mendeko historia eta oiturak lekuko bere irudietan. Zerutik jarraituko gaitu margotzen ain maite izan zuten iri eta lurraldea. Eta ziur aski jarraituko duela Iruñeko Katedralean Errosarioa erretzatzen "Rosario de los Esclavos" egunero egi-ten zuten bezalaxe. Alaxe lagundu dezaigula.

### Xole Erbiti





## Artzain-txakurrak (Artzaiñorak)

Gizakiak, leizetatik urten eban ezkerro, aurrerazten asi ziran. Lenengo eiztariak sortu ziran eta urrengo artzaiñak. Auxe izan zan gizakien edestian iraultzarik aundiena, jakiak eta abereak etxean eukitea, eta ekintza bi oneik gaur-arte jarraitzen dabe. Artzaiñen laguntzaille zintzoa beti izan da artzain-txakurra edo artzaiñora.

Olako txakurren sariketak antxiñatik egin izan dira Bizkaia´n eta Euzkalerri osoan.1956n. urtean egin zan Bizkaia´n lenengoa.

Txakur oneik ez dira enda bereizi bat, baiña urterik urtera Bizkaia´koak izan dira onenak. Ori jakiteko sariketak egiten dira Jaurlaritza´ko Lurgintza-Sailleak eta Foru-Aldundiak lagunduta.

Linneo´ko bere sailketa egin ebanean “Canis familiaris” izena emon eutson txakur oneri, baiña

askotarikoak dira. Gaur munduan 400 txakur-mota dagoz eta ez dakigu guztiz zenbat txakur diran mundu osoan, bai askotariko motak dagozela, margoz, trebetasunez, itxuraz,aunditasunez, ezbardiñak.

Sabueso da aundiena (91 zm.), Irlandakoa, urren Danemarka´koa (81 zm.) gero San Bernardo´renak (100 kg) eta txikiena “chihuahua” (450 gramo)

Etxeko txakurrak ausi egiten dabe, basokoak, ostera, ulu.

Txakurra izan da gizakiak etxeratu dauan eskuratzetik onena, gauza askotarako lagun dala: eizan, artzaintzan,zaintzan,aldezten, lagun izaten (txakurra da gizakien lagunik onena). Iñoz gizakien alde bizia be emoten dau



## EUSKAL ARTZAIÑOREN EDO ARTZAIN-TXAKURREN MOTAK.

Motak oneik dira:

- 1.-Auñamendikoak
- 2.-605 kataluñakoak.
- 3.-Border Colie.
- 4.-Colie.
- 5.- Labrit.
- 6.-Artzain alemana.
- 7.-Nastatuak

Gure artzainorak zein mota diran: Ez dago argi, nastau egin dira edo lanagaitik edo edertasunagaitik. Baiña gaur ba-dago Euskal Artzain Txakurra. Bizkaia´n 1000 txakur aztertu dira eta bakoitxak bere txartela dauka, gai oneik kontuan dirala, txartela eginda:gurasoak zeintzuk, gorputza zela-koa(margoa,begiak,belarriak, buztana, espoloiak), izena, adiña, arra ala emea, jatorria, non jaioak,22 neurri eta aztuntasuna agertzen dira txartel orretan.



Enkarterrian dago geien, gero Gorbeia´n, Durango-aldean eta Lea-Artibai aldean.Aztertu diran 1 000 txakurretatik %95 euskal artzainorak dira %5 beste enda batekoak.

Sarasa idazleak 1963n. urtean "Canicultura" liburua idatzi eban artzain-txakurrai begira. Auxe diño:"Giro txarrak jasaten daki, zurra da, eta berezko doia dauka artegiak edo artaldeak zaintzeko."

Oraindiño azterketa ori ez dago amaituta, baiña ona emen jakingarri batzuk, 1 500 txakur kontuan dirala:20kg, ez aundi eta ez txiki, suaren margoa,buztan osoa,espoloi bi. Sariketa asko egin dira eta beti ikusi da zurrak, esanekoak,lanean trebeak eta lagun onak dirala..

Gitxi idatzi da txakur onei buruz, baiña laster iragarriko dira jakingarri asko.



## SARIKETAK ZELAN EGITEN DIRAN

Talde bat dago artzain-txakurren sariketak eratzeko.

Oiñati´n asi ziran 1955n. urtean, gero errialde bakoitxean eratu dira eta emen nagusi diranak joaten dira Oiñati´ko sariketara. Gaur Jose Mª Leturia da arduratzen dana LODIZ taldearen barruan. Urtero bitan alkartzen dira Oiñati´n sariketak eratzeko. Araudi bat egin dabe (1987), artzain-oren sariketak eratzeko. 20 batzen dira urtero.

## ARAUDIA

Oñati da "katedral" 1955n. urtean asita eta araudia bear danean aldatu egiten da obetzeko.

Ona emen sariketa gertatzeko gaur zer egin bear dan: Lenengo mai bat osotu eta oneik lekua aztertu, gero artzaiñak batu mai beten inguruan asi baiño ordu-lauren lenago, jakingarriak batu, arrak eta emeak banatu, bakoitxari zenbaki bat emon, zozketa egin urregorik urregora nok ekin jakiteko (lenengo arrak gero emeak. Emeak zuzera edo orkera ba' dira sartzea debekatuta dago. Izena emotea aurretiaz egin bear da eta une aretan ez da iñor onartzen. Iru artegi gertatu. Maikoen neurriak: Txakurraren esanekotasuna, ekintza zigortuak, esaterako aginka egitea, txakurraren tratu txarra edo berari berba txarrak... Puntuak azkenean batu eta bardiñik ba' dago, ariñen egin dauanari emon saria.

Ardiak iru artegitan dagoz, bakoitxak 30 edo 50 ardi. Ikusleak isillik egon bear dabe txakurrak aginduak entzun al izan dagizan.

Len 12'etan Angelus otoitza egiten zan, frontoietan egiten dan lez. Gaur sarritan ez da ori egiten. Burtzeña'n bai, beti.

Sariketa-zelai itxia izan bear da. Artzaiña maikoen aurrean egoten da ardietatik 40 m.'ra Esiak argi ikusi bear dira eurak alkar ikusi bagerik eta metroko goireea euki bear dabe, zabalerea metro bikoa.. Bide bat bear da ikurrez mugatuta.



## SARKIKETEAREN IRU EKINTZAK

1ª.- Iru minutu: Ikurren artean ardiak bidea egin, gero txakurra gelditu, gero ardiak zuzendu. Danerako txilibitua jotzen da eta azkenean puntuak ezarri 25' era arte. Txakurrak ezer egin ez ba' dau, albortu egiten da. Puntu guztiak zenbatu eta onenak 2n. ekintzara doaz.

2ª.- Lenengoan geratu diranak egiten dabe. Txakurren artean zotz egiten da zein-noz asi ekintzan



Ardiak batu bear dauz eta artzaiñaren ondora ekarri, esia aukeratzeko da ardiak sartzeko. 40 puntu dira emen. Gero puntuak batu eta lengoai gaiñeratu. Azkenerako iru edo lau geratzen dira eta ori artzaiñai eta ikusleai esan bear jake.

3ª.- 7 minutokoa da: Ardiak batu eta zelai erdira eroan eta esira sartu. Ardiak ez dabe nai izaten esira sartzetik sarbidea be estua da-ta. Or agertzen da txakurraren trebetasuna, artzaiña berbaz lagun dauala. Guztiak sartu bear dauz. Txilibitua entzun eta ardiak esitik atera egin bear dauz, ez-lako gogorkeri bagerik. Emen puntuak 50 izaten dira. Orrelan amaitzen da ekiñaldi osoa, jakingarriak emonda.







Beste sari batzuk be emoten dira: Txakurrik egokienari, artzaiñaren jazkiai(txapela,brusa,arkondare,garrikoa,frakak, makillea zakutoa...

Garai-ikurrak eta dirua banatzen dira. Nagusitza urte baterako da.

### BIZKAIA´N NON EGITEN DIRAN

Bizkaia´n izaten da parte-artzaillerik geien eta onenak. Gitxienez 20. Eta asko diralako, aukeraketa egiten da aurreko egun baten.

Burtzeiña´n 13 kideko dirala: 1 Bizkai´ko onena, bitan aukeratuak, 6+ 6+1=13.

Guztiz 31 egin dira: Orduña´n 1956, Mungia´n 1957 ta 1958 1959. Gernika´n,1960 Trapaga´n,1962 Orduña´n,1967n. urtean asita Burtzeiña´n, gero Largatxa´n,1975 Burtzeiña´n 23 urtetan eta gero erri askotan.

Sariketara sartu dan lenengo emakumea , Sodupe´n, Edurne Isusi izan zan. Geien irabazi dauana Mañari´ko Serafin Etxaniobe,lautan; gero Abadeño´ko Urieen´ek 3,onen anaiak beste 3. Geienak Markiña-aldekoak dira.

OLAZAR´tar Martin´ek





# Euskalerria´ren Egia: VIII Europa´ko antolamendua´ren aurrean

## Aurkezpena:

Gure Europa onen edestiari, txoria´ren ikustaldi labur bat eginda ikusten dogu: Homo-Sapiens, kromañon edo Euskaldunak, Europa´ren izotz-urtezian Lurrarteko-itsasotik gorantz igonda Europa erritu egin ebela eta milla urte askoren azturazko ikas-bidetik, leiñuen auzotasunezko lurraldeetan kokatuta, Euskerazko izkuntz antzeko baten laterrituta geratu zirala. Eta zelan Euskalerriak, Atlant-itsasotik Alemania´ra eta Britania´tik Kadiz´erañoko lurraldeetan bere Euskal izatezko Jendekuntz nagusia lortu eban.

Bai, Persak, Europa zelan menderatu gura eben, Grezitarrak Maraton, Salamina eta Platea´ren medikas´eko guda´rekin geratuak.

Emen, Europa´ko bakezko antolamenduaren zirriborrotasunak asi ziran.

K.a. 753´ean asmatutako erromatarren jaiotzagaz asi zan dan-guzti au. Mundua´ren agintaritzan ardatz nagusia izan daiten, nai-ta euren maldaberan erlijioagaz alkartu indarrean sendotzeko 1.162 urte geroago ezereztuta (K.a. 753´tik-K.o. 409´rarte) geratu ziranak.

Zelan, Godo´akaz, euren 305´eko (409´tik-711´rarte) erromatar asmakuntzazko bizi urteetan, ez eben euki denborarik, leiñu guztiekin mendezko-borrokaren artean aren legeak bildumatzeko eta Toledo´ko Eleiz-batzarretan babestu, 718´tik aurrera Pelayo´k abidan ipini dagizan.

Mauritarrak euren jakintza aundian, agintaritzaren jaurkintzan eta erlijio´rako euki ebezan nagusitasunezko asmakuntzak 700 urtera be ez zirala eldu (711´tik-1.492´an Urtarrilla´ren 2´rarte).



Eta Europa`n, menderatzailetasunezko oldarkeri (atropello, violencia, impetuosi- dad) onein ostean, erri-gizarteak zelan agertu ziran bearrezko antolamendu barri baten egarrarian.

Europa, erregearen epaille edo artekaritzazko antolakuntzan ezarri zan eta euren eraikiteagaz batera, zelango naastetasunaren sare-arte-ko txeberan arrapatuta iges-eziñik geratu ziran, orduko jakin-agintaritzak alan erabagi ebalako: "Griego`en Jakintzan, Erromatar Kaizar eta Legedi-Sakratuaren" oiñarrizko baldintzatan, orduko jakintsu areik Europa ta Mundua baldintza orrekin neurtu gura izan ebelako.

Eta nai-ta, erregearen izatasunezko baldintzak artekaritzan ezarri, erregeak larderizko erromatar lege-orreik (leyes impositoras) menperatzailetasunezko jokora bideratzen ebezan, Europa eta Munduan ezagutzen ziran jendekuntzazko erri guztien artean, ia milla urteko guda-latzetan etorrita. Areik eta errege-leiñuen izarra beraldian egonda 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren bidetik, Munduan euren ustez dagozan jakintsu aundiak ostera, eta euki eben indar guztiekaz, Europaren jaurkintzazko antolamendua, bereztasunaren aurkako laterrietan ezarrita.

Mundua gaur, etsaitasun edo aurkatasunezko eritzi-bi onein (bereztasunaren eskubideak, menperatzailetasunezko beartasunaren aurkaritzan) bitartez, bere 3`n guda nagusian dago eta ez da iñungo miraria, giza ta erri-gizartearen eskubideak joko-leian dirala-ta, berezkoak diran arrazoiak, euren lekuetan ezartzeko alegiñean gagozelako.

Oraiñarte ikusi dogu, ez Euskalerra bakarrik, Europa ta Mundu guztia baizik zelango txeberazko sare-arte indartsuan arrapatuta dagoan iges egin ezinik.

Eta txeberazko eritzi-au da daukaguna, daukaguzan laterri-menperatzaillle onekin.

Pidal`ek bere jakintzazko indar guztiekin babestu egiten ebana, Europa ta Mundu onen edestia mal-

tzurtuz, beren España, betikoa izan bezala gaztelarrai eta espaiñol-ametsean dabezana okerrezko edestia erakutsi ta España`ren sasi-ameskerian itzul-miñagaz (añoranza) edo atsekabetuta (compungidos, afligidos) dagozenai aurkeztu eutsoena.

Eta eritzi ori da, gaurko espaiñarrak aurkezten daukuena.

A-ta guzti, bere buruan ezezaukizun (incognitas) aundiak agertu jakozan, ez ebelako ulertzen: *"Asi pues, durante los muchos siglos en que la fuerza centrífuga del localismo estuvo en auge, pues lo exigía el desarrollo de la vida nacional, un bilingüismo constitutivo, inextricable (difícil de desenredar) se extiende por todas partes"*. "Gaztelarrak..., zer !! euren ameskeriaren bidez lortu eben, berezko eritziaren aurka joanda, gizartearen eskubideak nastatzea ?.

Zergaitik berezko erri ta errigizarteak ez ebezan alboratzen euren NORTASUNEZKO izkuntzak ?.

Ez da izango konturatu egin zirala..., JAINKOA`ren LEGE-bidez, bizitzari gure arbasoak emon eutsoen milla urte askotako adierazpen bidean, lortu genduzan jendekuntzazko NORTASUN`aren ulermenetik ordezkatu bear doguzala bizitz onetan egin-bear doguzan gauza guztiak ?. Artean beste erri-gizarteakaz urbiltzen eta zergaitik ez..... bizitz onen eragozpenak samurtu edo erreztu egiteko zentzunezko oinkadak emon eta NORTASUNAK galdu-gabe, NOR izanda batzangotzen joan gaitezana ?.

Beti baiña !! edestian ondo ikasita daukagun eta danok jakitun izanda ASKATASUNEZKO NORTASUN-ARTEKO LOTSAGIZUNEAN, "DANOK" eskubide bardiñekoak garelako JAINKOA`ren AURREAN.

Pidal`ek, ondo jakin eban, Euskerea gaztelera baiño, ainbat milla-urte ariñagokoa izan zala, eta maltzurrezko eritzi orreik egia-bezala zabaltzeagaitik ez daukana iñungo parkamenik.







## Euskalerrian, gaurko eragozpenak:

Europa eta Espaiña`ko laterrian batez-be, oraiñ-arteke edestian ikusi dogu, 2.000 urtetik onantza eguneroko orrialdiak gaurko egunerarte aldatzen joanda, bardiñak izan dirala eta erdi-ugarte onen erri-gizarteetan, bear diran baiño askotan odol-jariozko sarrazkiak eginda.

Eta Euskalerrian, ariñagoko erri-babesaren alde ez ba-ziran gitxi izan euki genduzenak, orain 185 urte daroaguz morroilope txeberazko sare onetatik urten ezinik, gure borondatearen aurka daukagun menperatzaille-laterri au Europa guztian sortzen dan bezala, merkataritzaren nausitasunak eta gudalozteak euren alde daukiezelako, bizitzeko bear doguzan lurralde, diru ta mozkin guztiak euren kontrolpean euki dagiezan.

Beste alde batetik begituta esan leike, menperatzailleai, daukien berezetasunaren aurkako antolamendutik billurra emoten dautsoela urtetea, berezko erri-gizarteak Euskalerria-lez, ez garalako gai izango Europa`k daroan batzangotasun

edo urbiltasu- nezko bidean konpontzeko (Felipe Gonzalez`ek, borondate guztiagaz emon eban eze-tza, Europa`n sortzen dauazan jaurkintzak, kirker (grillo) kaiola antzekoa baten biurtuko ziralako). Edo ez dabela urten nai, euren sasi-aundikerian ondo bizi diralako.

Dana dala eta Demokraziaren egarritasunezko eskaerari esker, gauzaren egitasunak, zentzun eta zeatztasunaren ardurazko lotseak eskatzen dausku danori eta orrek ardurak ezin dira bere senean ordezkatu, danon ardurak esku baten kateatuta gaur-lez egoten ba-dira. Gaur, bear doguzan arduraren ordezko lotsa onen aurrean, menperatzaillearen maltzurrezko eragozpenak, eznearen-bitzak lez, argitasunezko nabaritasunean geratzen dira, JAINKOA`ren LEGEak euren zabaltasun aundian, egian estuak diralako eta izatasun orreri esker: "Euskalerrian Askatasuna uste-on edo itxaropentsu agertzen jaku.



## Euskalerria`k:

Au da aurrean daukana, baiña..., zelan jokatu bear dogu erria ta Euskal Erri-gizartearen NORTASUNA sendotzeko eta beren Askatasuna lortzeko ?.

Zelango baldintzatan jokatu bear dogu ?.

### Nortasunezko baldintzak :

- ✿ Gure ERRIA eta gure NORTASUNAK sendotu daitezcan EUSKAREA INDARTU.
- ✿ Euskal Giza-Barreneko ARDURAN SENDOTU gaitezcan, BATZARRAK INDARTU.
- ✿ ERRI-lez indarra euki dagigun GURE JAURLARITZA SENDOTU.
- ✿ IPARRALDEKO EUSKALDUNAKAZ, ARTU-EMONAK SENDOTU: JAKINTZA, LANGINTZAN, BIDEAK eta ARTU-EMONETAN.
- ✿ Españatarrai BETI !! ASKATASUNA ESKATU.
- ✿ BETI, EUROPA-BATUARI eta Espaiña-BARIK, GURE-NORTASUNA EZKEIÑI (KOSOBO`en ANTZERA).
- ✿ Eta SASOI EGOKIENA DATORRENEAN "ASKATASUN OSOA ESKATU"
- ✿ ORRETARAKO BAIÑA, IÑOZ EZ DA BEAR "GUDA-BIDERIK EZ IZKILLURIK !!!"

EUSKALERRIA BERE EDESTI GUZTIAN, SINISMENDUTA EGON DA BETI EGIN DAUAN ZENTZUNEZKO LANAGAZ AUERRERA URTETEKO ETA ONAÑO EKARRI GAITUEN GURE "ARBASOAK".

"EUSKALERRIAREN ABERRI ta NORTASUNEZKO ASKATASUNAK GURE ZENTZUNEZKO ZEREGIÑETAN DAGOZ". GITXIAGO IZANGO ETE-GARA-BA ?.



## Oroitzagaz inguraturik

Nire oroitzaz inguraturik  
geroko bizitzara noa  
bidetik lorak ereinduz  
kolore askotako lorak

Basati eta apalak dira  
batzuk arantzadunak  
usaintsuak beste batzuk  
paregabeko guztiak.

Malkoaz bustiak dira  
malkoaz eta irriaz  
abestiaz seazkaturik  
itz gozoakaz zainduak.

Atzetik bazabilkidaz  
aukeratu nai dozuna  
gozokiro lurretik artu  
eta zaindu maitasunaz.

Palmi Merino

olerkia



# Denboraren garrantzia

Ara gogoan artuteko istorio interesgarri bat.

1- Egin kontu goizero banku-etxeak zure kontuan 86.400 dolar jartzen dauzala.

Aldi berean banku-etxe bitxi orrek egunean multzotu dozuna ez dau

urrengorako gordeko: gastatu barik itxitakoa gauero kontutik kendu egingo deutzu.

Orrelangoan, zer egin?... Ziur asko, egunean gastatu bakoa gauero zurekin artuko dozu, ezta ?

2- Ba, gutariko bakoitzak etenbako diru-sarrera langoa dogu... **Denbora**. Goizoro gure kontuan **86.400 segundo** izten deuzkuez.

Gauero balio barik erabiliak kendu ta ezer-ezean izten deuzkuez.

3- Kontu orrek ez dau egun batetik bestera irauten. Geiegizko igorpenik ez dau onartuten.

Egunero asten da barriro kontua.

Eta gauero soberan geratutakoa ezabatuten da.

Egunean erabilli bakoa galdutzat emon daikezu.

Ez dago orretan atzerabiderik.

Ezin da biarko gorde :egunean egunekoa, besterik ez.

4- Beraz, ara aolku bat: emon zure denbora osasuna, zoriona eta arrakasta lantzen.

Denboreak beti aurrera egiten dauanez... orain saiatu.

5- Urte oso batek dauan balioaz jabetzeko, galdetu urtealdia errepikatu bear izan dauan ikasleari...

Illabete osoaren balioaz jabetzeko, galdetu epe aurretik umea izan dauan amari...

Aste oso baten balioaz jabetzeko, galdetu aste-karia argitaratuten dauenari...

Ordu baten balioaz jabetzeko, galdetu topaketaren zain dagozan maitaleei...

6- Minutu baten balioaz jabetzeko, galdetu trenak ies egin deutzonari...

Segundo baten balioaz jabetzeko, galdetu istri-pua izateko arrisku bizian egon danari...

Segundo baten millaren balioaz jabetzeko, galdetu olinpiadetan zillarrezko garaikurra lortu dauenari...

7- Emon balioa une bakoitzari. Baliotsuagoa izango jatzu esanguratsu dan norbaitekin partekatu ezker, zure denbora bitartez balioztatu egin dozulako... denboreak ez deutzon-ta iñori itxaroten.

8- Ezezaguna da mezu onen sorrera; baña banatzen dabenei zorte ona emoten dautse.

Ez gorde mezu au.

Bialdu zorte ona opa dautsezun bost adizkideei. Lau egun barru zerbait ona gertatuko jatzu. Beraz.. zorte on !

(Patxi Otamendik euskeratua)





# Nire euskalduntzerako bidea

Umetan jakin neban Euskal-Erriko izkuntza euskerea zala. Naiz eta Bizkaian jaioa izan, gurasoak eta gurasoen sendi osoa kanpotik etorriak ziran eta.

Jaio eta azi nintzan auzoan gurasoen izkuntza baino ez zan

entzuten, ezta eskolan ere, orregaitik ondoko auzoko eskolara aldatu nindueanean eta orma batean idatzitakoa ikustean guttiz arritu nintzan.

“BIZKAIAREN AUZO-IKASTOLA” inoan idazkunak.

Ni, betidanik oso jakinguratsua izan eta izango nazan ezker, maistrarengana joan nintzan zer esan gura eban jakin gurean eta berak atseginez azaldu eustan, naiz eta jatorriaz Santanderrekoa izan, eta orrez gainera, egun aretan ATOR ATOR abestia irakatsi euskun.

Bai pozik joan nintzala etxera! Barritsu ere banintzan, eta banaz, eta jasotakoa kontatzean, gurasoen arpegietan zeozer berezia ikusi neban, aldi aretan gauza batzuetaz mintzatzea galerazota egoan, baina ordutik aurrera eskolan ez genduan euskerazko beste abestirik ikasi.

Urteak joan eta urteak etorri, beste gazte batzuek arremantetan euskereagaz barriro topo egin neban eta olan jakin neban ere euskaldunen izkuntza izan arren berba egitea debekatu ta egoala. Une orretan erabaki neban: ni, goiz zein berandu, euskaldundu egingo nintzan.

Urte aretan euskera ikasteko tokirik ez egoan eta andre-gazte izan arte itxaron egin bear neban.

Gizona ta biok asi ginan ikasten. Gabeko klase ixilpekoak ziran eta andik gitxira, umeak eto-

rri ziranean, ikasteari itzi bear neutson. Urte bi geroago, gure ezker aldeko erritxoan lenengo umeentzako ikastola antolatzea lortu genduan eta aldi berean amatxo batzuk barriro asi ginan euskerea ikasten.

Andereño bat bakarrik izanez gero, urtero asieratik asi bear izaten genduan eta laugarren edo bosgarren ikastaroan, geiago ikasi guraz, Bilbora joatea erabaki neban.

A bai gogorra! iru seme-alabak azin urrun joatea oso zaila egiten jatan, baina pentsatu eta egin. Andereñoak EUSKERAZALEAK ikastegira joatea gomendatu eustan.

A bildurra eta biotz-ikara! Trena artu, ordu-erdiko bidaia egin eta antxe nengoan, ate aurrean zailtasunaz irakurtzen “Sartu barrura deitu barik”. Atea bultzatu, anak dardaraz gizon batengana urbildu eta totelka galdetu neutson:

Parkatu, zer egin bear dot euskera ikasteko?

Gogo izan andrea, gogo izan, ori baino ez da bear.-- Esan eustan irribarrez.

—Ori badaukat— erantzun neutson lasaiago, eta antxe asi zan niretzat euskerea ikastearen poztasuna.

Ainbat arreta eta atseginez onartu ninduan gizonak Landajueta Jauna izan zan, beti alai, umore onaz eta ara joaten zan euskaldunbarriari artu-emon aundiaz artzen.

Proba batzuk egin neban eta irugarren ikastaroan sartu ninduen. An, Imanol irakasleagaz asi nintzan, geroago Josu Legarreta, Bernardo, Jon Bilbao eta andik ibiltzen zan jende jator pilo eza-gutu neban.

Antxe ere, aaztu-ezinekoa zan Xabier Pena ezagutzeko aukera izan neban. Beragaz, eta azterketa bat egin ostean, euskeraz-asiera irakasteko agiria lortu neban. Ni ez nintzan ausartzen naikorik ez nekialako, baina berak adoreaz eta bere laguntzaz lortuko nebala esan eta gogo berotu eustan.

Zelan aaztu EUSKERAZALEAK alkartearen ainbeste lagun! Antxe be, ain gartsua zan Ma Letona, beti laguntzeko prest neban Iñaki Zubiri, idazteko zaletasuna biztu eustan Aita Onaindia...

Orain ogeita bost urte gitxi gorabera, gure errira etortzeko eskatu neutsen, nik irakasten neban batzokian bertoko euskaldunetzat itzaldi bat emoteko, zeaztasunaz gogoratzen dot egun a. Aita Onaindia eta Martin Olazar etorri ziran. Gure erriko euskaldun-zarren poza esan-ezina zan, ainbat urte berba-egiteko bildurraz eta egun aretan gorde ta euken guztia zerutik jausitako abade arekaz ateratzeko aukera! Beste aldetik, olan jakin neban nik zenbat euskaldun egoan nire errian eta ordutik aurrera baneukan eurekin berba-egiteko aukera.

Sakontasunez ez dot areetako inor ezagutu baina euren euskeraren aldeko lana eta maitasuna bai, jarraitu dot eta ain gogor eta ez-berekoia izan arren, Euskerazaleak alkarte zein euskeraren alde bizia emon dabenak, baztertuak izan dirala biotz-biotzez esan daiket.

Ixiltasunaz joan zarie, baina nirea bezelako biotz askorengan betirako izango zarie. Eskerrik asko zuen lanagaitik!



## Arbizu erri maite !!!

(Nire ama zenaren jaioterria)

1- Naparroa-ko txoko argia  
emango dut zure berri,  
ARBIZU erri maite zu zera  
guraso zaarren aberri  
San Migel gailur ipar aldera,  
bestaldetik Andi- mendi,  
sartaldetik an Gipuzkoa-runtz  
ikus daiteke Aizkorri.

2- Golde sendo bat etxe aurrean,  
enbor bat dauka oinarri,  
erakustoki antzeko orrek  
biurtu zaitu irudi.  
Belar soroak ikusten ditut,  
garia zuten aspaldi.  
errixka maite aldatu zera,  
nire amaren sorteri.

3- Umetandikan ikasi nuen  
nire amaren eskutik,  
zure bazterrak ongi maitatzen,  
gaurko gogoa, ortxe nik  
Artalde onak, abelgorriak,  
baita ere auntz ederrik,  
egin aalean jardunagatik  
ezin aurreztu dirurik.

4- Kaferen etxe, Goñi- tarrena  
,zenbat gogaketa bertan !  
Barne muineko biotz zirradak  
aginduz esan dezadan:  
Joxe Antonio Goñi aitona:  
baserriko bearrean,  
zenbat lan gogor gerri makurrez  
ez ote zenuten jasan!!

5- Bizi bearrak gira zituen  
lan berritara buruak,  
isildu ziren karrikan zear,  
gurdi-kurpilen soinuak.  
Ustuak dira ganbaratxoak,  
utsik daude ukuiluak,  
alarik ere oitura zaarrak  
or ditu gaurko munduak.

6- Erretore zen Don Juan arek  
euskal soroa landurik,  
uzta ederra jaso zenuten  
euskerak irabazirik.  
Gaur egun ere arbizuarrak  
euskaldun dira gogotik,  
beste lekutan ilzorian da  
zuen bizi-bizirik.

Joxemari Murua Goñi -k

 Donostia-tik.

olerkia





On bixente latiegi apaizari (g.b.)  
(1919-2005)

Nola irauli emen  
nire oroimena ?  
Bixente lagun zintzo,  
maixutan leenena.  
Batzarretan ez zaude,  
ta guk, auxe pena !!!  
Euskerazaintza-k ez du  
leen zuen kemena.

Elizaren kondaira  
euskeraz emana,  
zortzi liburu aunditan,  
ortxe dago dana.  
Ainbat urtetan zuk, bai !  
egiñiko lana,  
Zerutik zure atsa  
betor guregana.

Joan ziñen gure ondotik,  
an zuk Aita ona,  
eliz-gizona izanik,  
fededun pertsona.  
Fede sendo orretan,  
or zeure sakona,  
Euskaltzale jakintsu,  
nolako gizona !!!

Lankideak galdurik  
abe sendoena,  
agur Bixente maixu,  
bertsoz asperena,  
Euskera lantzen, zu bai !  
onetan onena,  
izan bezazu orain,  
betiko atsedena.

Joxemari Murua-k

olerkia

# E u s k a l a s t e a

Urte guztietan lez, aurten be Euskarazaleak Alkartean ospatuko da.

2009-11-23' tik

2009-11-24

2009-11-25

2009-11-26

2009-11-27' tara

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

Ordua: Zazpi' ta erdietan

**EUSKERAZALEAK**



## IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearke dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira:

1.ª	300 euro	4.ª	120 euro
2.ª	240 euro	5.ª	60 euro
3.ª	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.
- **Mesedez bialdu CD edo disketea**

**EUSKERAZALEAK**

### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....'tar .....  
..... kalean (auzoan) ..... zenbakian  
..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,  
an daukadan                zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



GERNIKAKO ARBOLA  
DA BEDEINKATUA  
EUSKALDUNEN ARTEAN  
GUZTIZ MAITATUA  
EMAN DA ZABAL ZAZU  
MUNDUAN FRUTUA  
ADORATZEN ZAITUGU  
ARBOLA SANTUA

MILLA URTE INGURU DA  
ESATEN DUTELA  
JAINKOAN JARRI ZUELA  
GERNIKAKO ARBOLA.  
ZAUDE BADA ZUTIKAN  
ORAIN DA DENBORA  
ERORITZEN BAZERA  
ARRAS GALDU GERA

# EUSKERAZALEAK

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO